



## borondatezko akordioak acuerdos voluntarios

### Zementuaren sektorea

### Kimikaren sektorea

### Altzairuaren sektorea



Sector Cemento

Sector Químico

Sector del Acero


# Euskal Autonomia Erkidegoko Borondatezko Hitzarmenen aurrerapenak eta erronkak

## 2004ko EMAITZAK

### Oregintza eta Papergintza sektorea

### Hondakin Arriskutsuen kudeatzaileak sektorea

### Galdaketa eta Metalurgiaren sektorea



Sector de Pasta y Papel

Sector de Gestores  
de Residuos Peligrosos

Sector de Fundición  
y Metalurgia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LURRALDE ANTOLAMENDU  
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL  
TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

## Aurkezpena

Ingurumen-politikak, berak bakarrik, ezin die irtenbidea eman ingurumenari lotuta dauden arazo guztiei. Horren ordez, ingurumen-helburuak politika publiko guztietan integratu behar dira. Administrazioari, bestalde, ingurumena hondatzea eragozteko planak eta programak ezartzen aitzindari-izan dadila eskatzen zaio.

Esparru horretan, Administrazioak garrantzia du ingurumen politika aurreratuak ezartzeko sustapen-tresna gisa. Horrez gain, ingurumena ere kontuan hartzea nahitaezkoa da, Administrazioaren planak eta programak diseinatzen hasten diren une beretik. Eragile publiko garen neurrian, gizartearen sustatzaile, sentsibilizatzaile eta adibide izan behar dugu.

IPPC Poluzioaren Prebentzio eta Kontrol Integraturako Legean zehaztutako industria-sektoreek eta Administrazioak sinatu dituzten Borondatezko Ingurumen Hitzarmenak mugari izan dira *2002-2020ko Garapen Iraunkorren Ingurumen Estrategian* ezarritako helburuak betetzeko bidean. 2003 eta 2004 urteetan, Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat enpresak (6 sektoretan banatutako 118 enpresa) beren jardueraren ingurumen-inpaktua murrizteko eta ingurumen-legediak zehazten dituen epeei aurrea hartzeko borondatea azaldu dute. 2005a bukatzen denerako, berrehun enpresa baino gehiagok izango dituzte sinatuta borondatezko hitzarmenak Administrazioarekin.

Borondatezko hitzarmenen eragin positiboen artean, kontuan hartzekoa da hitzarmen horiek esparru egokia bilakatu direla enpresen eta Administrazioaren arteko komunikazio-kanal egonkorra eratzeko. Hitzarmenak ez dira izan asmo onen deklarazio huts, eta, horiei esker, enpresetan ingurumena hobetzeko aplikatzen diren neurriak bateratzea lortu da, eta neurriak guztiz zehaztu eta kuantifikatu dira. Gaur arte sinatu diren hitzarmenei esker, 1.618.569 t hondakin gutxiago isuri da atmosferara eta uretara. Gainera, berrogeita hamar hobekuntza-neurri ezarri dira, eta hainbat enpresak beren ingurumen-kudeaketarako sistema ziurtatu dute, ISO 14001 Arauaren edo EMAS erregistroaren arabera.

Eusko Jurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak ingurumena hobetzeko lanean parte hartzen duten agenteen arteko elkarrizketaren eta lankidetzaren alde egiten du, hitzarmen horien bitartez. Ziur gaude arrakasta izango dutela sinatu diren hitzarmenek eta hurrengo hilabeteetan gauzatuko direnek. Hor daude orain arte lortutako emaitzak. Euskal Autonomia Erkidegoko gizarteak jarri dituen ingurumen-helburuak lortzeko bide onean gaudela esan dezakegu, inolako zalantzarik gabe.



**Sabin Intxaurre**

Eusko Jurlaritzako Lurralde Antolamendu  
eta Ingurumen Sailburua



## Zer dira Borondatezko Hitzarmenak? Zein bilakaera dute?

**2**002ko uztailaren 1ean 16/2002 Legea, poluzioaren *prebentzio eta kontrol integratuei buruzkoa*, onartu zen. Lege hori mugarrizko izan zen gehien polui dezaketen industria-sektoreak egokitu beharreko legezkotasun baldintzei dagokienez.

### 16/2002 IPPC ZUZENTARAUAK SEKTORE HAUEI ERAGITEN DIE

- Errekuntza-instalazioak
- Metalen ekoizpena eta eraldaketa
- Mineral-industriak
- Industria kimikoa
- Hondakinen kudeaketa
- Papergintza eta kartoigintza
- Ehungintza
- Larrugintza
- Nekazaritzako elikagaigintza eta abeltzaintza
- Disolbatzaile organikoen kontsumoa
- Karbonoaren industria

Lege honen arabera, sektore jakin batekoak diren, ekoizpen-prozesu jakinak dituzten eta produktuak ekoizteko ahalmen jakin bat duten enpresa guztiek Ingurumen Baimen Integratua tramitatu behar dute 2006ko abenduaren 31rako. Baimen hori enpresak eduki beharreko ingurumen-baimen guztiak biltzen dituen lizentzia da.

Baimen horrez gain, ingurumen-gaietako erakunde eskudunek emisioen mugak ezarri behar dituzte erabilgarri dauden teknologia onenak (BAT) oinarri hartuta.

Horregatik, lege hori jauzi kualitatiboa izango da enpresen ingurumen-kudeaketan.

Aldaketa hori ezin denez egin egun batetik bestera, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak Borondatezko Ingurumen Hitzarmenak kaleratu ditu, IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren bidez. Hitzarmen horietan, industria-sektoreek eta Eusko Jaurlaritzak hobetzeko helburu jakin batzuk lortzeko konpromisoa hartzen dute, pixkanaka arestian aipatutako legearen eskakizunetara egokitzeko eta hori lortzeko bidean aurrera egiteko.

Zehazki, hitzarmen horien helburuak hauek dira:

- Ingurumena hobetzea, legeek eskatzen dutena baino gehiago,
- IPPC Legeko betebeharrei aurrea hartzea.

2003an eta 2004an, lege horrek eragindako hainbat sektoreekin sinatu da hitzarmena. Besteak beste, hauek:

2003. Urtea	2004. Urtea	2005. Urtea
Porlana	Oregintza eta Papergintza	Beira, Zeramika eta Karea
Kimika	Hondakin Arriskutsuen Kudeatzaileak	
Altzairua	Burdinazko Galdaketa Eta Metalurgia	

Borondatezko Hitzarmen hauetan, lehenengo faseko bilera teknikoetan, hitzarmen horretan sartu beharreko helburuak adosten dira eta, ondoren, sinatu egiten dira hitzarmenak.

Sinatu ondoren, lanaren prozesua bera hasten da, eta hitzartutako jarduerak guztiak jartzen dira martxan, batera edo banaka.

Egindako aurrerapenen segimendua sei hilez behin egiten da, eta urtean behin segimendu xeheagoa egiten da, desbideratzeak eta arazoak detektatzeko eta hartutako konpromisoak bide onetik joan daitezkeen egin beharreko jarduerak martxan jartzeko.

Liburuxka honetan, hain zuzen ere, sektore bakoitzean izandako aurrerapenak, ikasitako lezioak eta aurrera begira dituzten erronkak aipatzen dira.

### GLOSARIOA:

- **Hondakinen balorizazioa:** Enpresa batek sortutako hondakina beste enpresa batean erabiltzea, bai erregai gisa, bai lehengai gisa.
- **EPER txostena:** IPPC Legeak eskatzen die enpresei uretara eta aire-ara egindako isurpenei buruzko datuak tokiko gobernuari eta gobernu zentralari bidaltzeko, gobernu horiek muga jakinak gainditzen dituzten balioak publiko egin ditzaten, eta herritarrek balio horien berri izan dezaten.
- **Iraunkortasunari buruzko memoriak (GRI):** Global Reporting Initiative (GRI) nazioarteko erakunde independente bat da, eta instituzio ugari osatzen dute: industria, GKEak, erakunde ekonomikoak eta abar. Erakunde horrek ospe handia du. Iraunkortasunari buruzko memoriak (enpresek egiten dituzten memoria publikoak, ekonomiari, gizarteari eta ingurumenari buruzko informazioa dutenak) bete beharreko baldintza batzuk ezarri ditu erakunde horrek. Iraunkortasunari buruzko memoria egokia izateko oinarritzko baldintza gisa daude onartuta baldintza horiek.
- **EMAS:** Ingurumena kudeatzeko eta ikuskatzeko Europako Araudia da, eta Ingurumeneko Europako Batzordeak sustatzen du. Ingurumenari buruzko autoebaluazioa egin nahi duten eta kanpoko eragileek eta ingurumeneko administrazio eskudunek publikoki abalaturako ingurumen-hobekuntza lortu nahi duten erakundeek bete beharreko baldintzak finkatzen ditu araudi horrek.



## Zementuaren Sektorearen Borondatezko Hitzarmenaren segimendurako gakoak

Ziurtagiria sinatutako eguna: 2003ko ekainaren 11

Akordioa sinatu duten enpresak/instalazioak: 2/3  
LEMONA INDUSTRIAL, S.A.U., SOCIEDAD FINANCIERA Y MINERA, S.A. (ARRIGORRIAGA ETA AÑORGAKO FABRIKAK).

2004ko emaitzen segimendu-data: 2005ko apirilaren 4a

### Landutako gai nagusien eta lorpenen laburpena:

	Hitzarmenaren Helburu nagusiak	Emaitzak 2004	Esanahia
 <b>Ingurumen-hobekuntzak</b>	Hondakin ez-arrisksuen balorizazioa (tonak)	88.173 tona	Zementuaren sektoreak beste zenbait sektorek ekoiztutako hondakinak erabiltzen ditu bere prozesuan. Ondorioz, hondakin horiek ez dira isurtzen.
 <b>Hobekuntzak kudeaketan edo irizpideetan</b>	Enpresen ingurumen-datuaren txostena (EPER)	3 instalazio (% 100)	Uretara eta airera egindako emisioen datuak eman dizkiete 2 enpresek Ingurumen Sailburuordetzari eta Gobernu Zentralari.
	Iraunkortasunari buruzko memoria egitea (GRI irizpideetan oinarrituta)	Enpresa batek bere memoria egiaztatu du GRI irizpideetan oinarrituta	Global Reporting Initiative-ek gutxieneko baldintzak ezarri ditu iraunkortasunari buruzko memoria publikoetarako. Enpresa batek bere memoria egin du GRI irizpideetan oinarrituta eta, hala, bere ingurumen-informazioa ageriko bihurtzen du.

### SEKTOREAREN HITZA:

- Sektorearen hitzasektorearen gogobetetasunaren 2004ko batezbestekoa (0tik 10era), hitzarmenaren arabera: 6,5.
- Hitzarmenaren indarguneak:
  - Hainbat solaskiderekin zuzenean hitz egiteko aukera.
  - Porlanaren Borondatezko Hitzarmenaren segimendua egiten duen teknikariaren ardura eta lana.
- Proposatzen diren hobekuntzak:
  - Administrazioa gehiago gerturatzea enpresen beharretara eta enpresen errealitatera.
  - Laguntza-zerbitzuak gehiago espezializatzea.





## Porlan-enpresek Borondatezko Hitzarmenaren Aurrerapenei eta aukerei buruz duten ikuspegia

**2** 003ko ekainean Porlanaren Sektorearen Borondatezko Ingurumen Hitzarmena sinatu zenetik, ingurumenarekin lotutako hobekuntza ugari egin da gure instalazioetan, hitzarmen horretan hartutako konpromisoak betetzeko eta Poluzioaren Prebentziorako eta Kontrolerako Legera egokitzeko.

Ez dira helburu guztiak bete, hainbat arrazoiengatik. Batzuetan, balorizazio-helburuetan lehen bezala kudeatzen diren hondakinak sartu direlako (adibidez, hondakindegira bidaltzen diren eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak).

Baina, beste hondakin-mota batzuk balorizatzeari dagokionez, beste sektore batzuetan ere borondatezko hitzarmenak sinatu izanak aldaketa ekarri du, eta hondakinak etengabe jaso dira eta geroz eta gehiago jasotzen dira. Esate baterako, altzairutegietako zepak eta galdaketa-hareak jaso dira; hondakin horiek, teknikoki bideragarriak izan arren, hondakindegietara eramaten zituzten lehen.

Etorkizun hurbila esperantzaz beteta dator, eta, alde horretatik, helburu hauek ditugu: hitzartutako hondakin-kantitatea balorizatzea, kudeaketa-mekanismo horiek beste industria-hondakin batzuetara zabaltzea eta atmosfera poluitzen duten gai guztien etengabeko kontrol osoa egitea. Halaber, garapen iraunkorreko politikekin segituko dugu, Global Reporting Initiative erakundearen baldintzak eta EMAS Araudia betez.

LEMONA INDUSTRIAL, S.A



**2** 003ko ekainaren 11n, porlanaren sektorearen borondatezko ingurumen-hitzarmena sinatu zen, eta, orduz geroztik, beste hitzarmen batzuk sinatu dira Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sektore garrantzitsuenekin, betiere *2002-2020ko Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiak* proposatutako helburuei jarraikiz. Hitzarmen aitzindari horrek argi utzi zuen Euskal Autonomia Erkidegoko porlanaren sektoreak gogo biziz lan egingo duela gure gizarteak dituen hainbat arazo konpontzen laguntzeko. Bestalde, porlanaren sektoreak eta Ingurumen Administrazioak orain arte izan duten lankidetzaz emankorra sakondu zen. Enpresa sinatzaileen heldutasunari (*Cementos Rezolak 150 urte baino gehiago daromatza Euskal Autonomia Erkidegoan lanean*) eta Garapen Iraunkorrarekin duten konpromiso estuari esker egin zen urrats hori.

Bi urtean lanean aritu ostean, harro gaude egindako lanaz, eta itxaropenez hartuko dugu egiteko dagoena. Azken urteotan egindako lanean nabarmendu nahi ditugu: Ingurumen Administrazioako arduradunekin eta beste sektore batzuetako ordezkariekin ezarri den etengabeko komunikazioa, beharrezkoa baita; inbertsio-politika egokia garatu izana, Cementos Rezola fabrikek ingurumenarekiko duten jokatzea hobetzea ahalbidetu baitu; eta Cementos Rezolaren 2003ko Iraunkortasun Txostena argitaratu izana lehenengoz; txosten hori AENOREk ziurtatu du, GRI erakundearen (Global Reporting Initiative) jarraibideen arabera, eta lehenengoa da Europako porlanaren sektorean; gainera, Estatuan komunikazio-politikaren gardentasuna ziurtatu duten lehenengo 20 enpresen artean dago. Oraindik lortzeke ditugun helburuen artean, nabarmentzekoa da Ingurumen Baimen Integratuak lortzeari dagokiona; hala, Euskal Autonomia Erkidegoko porlanaren sektorea Europako Batasuneko beste herrialde batzuen parean izango da lehengai eta erregai alternatiboen erabileran, eta gure inguruneko hondakinen arazoari irtenbidea ematen lagunduko dio.

Lehenago esan genuen moduan, Cementos Rezolan argi dugu gure egitekoa: konpromisoa hartu dugu Garapen Iraunkorrarekin, eta gure esku dagoen guztia egingo dugu gure borondatez sortu ditugun itxaropenak betetzeko.

SOCIEDAD FINANCIERA Y MINERA, S.A

### Hitzarmena sinatu duten enpresak



Lemona Industrial, S.A.



Sociedad Financiera y Minera, S.A  
(Plantas de Arrigorriaga y Añorga)





## Kimikaren sektorearen Borondatezko Hitzarmenaren segimendurako gakoak

Ziurtagiria sinatutako eguna: 2003ko uztailaren 23a

**Akordioa sinatu duten enpresak/instalazioak:** 25/27  
 ACIDEKA, S.A., ARKEMA QUIMICA, S.A. (Alonsotegiko fabrika), ARKEMA QUIMICA, S.A. (Fábrica de Hernani), AUXILIAR INDUSTRIAL, S.A., AUXILIAR PAPELERA, S.A., BAKELITE IBERICA, S.A. (Hernaniko fabrika), BAKELITE IBERICA, S.A. (Lantarongo fabrika), BEFESA DESULFURACIÓN, S.A., BILBAINA DE ALQUITRANES, S.A., BRIDGESTONE HISPANIA, S.A., DOW CHEMICAL IBERICA, S.L., ELECTROQUIMICA DE HERNANI, S.A., ENERGÍA PORTATIL, S.A., FAES FARMA, S.A., FERTIBERIA S.A., FMC FORET, S.A., FORMICA, S.A., SMC FOSECO PRODUCTOS FUNDICIÓN S.A., GENERAL QUIMICA, S.A., INDUSTRIAS QUIMICAS TEXTILES, S.A. (INQUITEX), LATEXIA IBERIA, S.L., NUBIOLA PIGMENTOS, S.L., PLASTIFICANTES DE LUTXANA, S.A., RHODIA IBERIA, S.L., SILQUIMICA, S.A., UNIÓN ESPAÑOLA DE EXPLOSIVOS, S.A., UNIÓN EXPLOSIVOS-ENSIGN BICKFORD SISTEMAS DE INICIACIÓN, S.L.

**2004ko emaitzen segimendu-data:** 2005eko martxoaren 17a

**2005erako atxikitako enpresak berriak (2):** ASUA PRODUCTS, S.A, BGB GIOVANNI BOZZETTO, S.A

**Beste zenbait azalpen garrantzitsu:** Plastificantes de Lutxana, S.A. enpresak hitzarmenean parte hartzeari utzi dio bere jarduera etetearen ondorioz.

**2005erako hitzarmena sinatutako instalazioak:** 28

### Landutako gai nagusien eta lorpenen laburpena:



	Hitzarmenaren Helburu nagusiak	Emaitzak 2004	Esanahia
<b>Ingurumen-hobekuntzak</b>	rialen kontsumoa murriztea (tonak)	57 tona gutxiago kontsumitu dira	Prozesua hobetzeko neurrien bidez, sektoreak materialen kontsumoa murriztu du.
	Atmosferarako nahiz uretarako emisioak murriztea (tonak)	Hainbat substantziaren 53 tona gutxiago isuri dira atmosferara eta uretara	Prebentzio-neurrien bidez, hitzarmena sinatu duten enpresek hainbat gai kimikoren kantitate txikiagoa isuri dute uretara eta atmosferara.
	Hondakinen sorrera murriztea (tonak)	284 tona hondakin gutxiago	Sektoreak hondakin-kantitate hori ekoizteari ere utzi dio.
<b>Hobekuntzak kudeaketan edo izapideetan</b>	ISO 14001 arauaren arabera ziurtagiria duten enpresak	Instalazio bat ziurtatu da	2004an ISO 14001 arauaren arabera ziurtagiria jaso du enpresa batek, eta kanpoko eragile batek berretsi du sistema hori.

### SEKTOREAREN HITZA:

• **Sektorearen gogobetetasunaren 2004ko batezbestekoa (0tik 10era), hitzarmenaren arabera:** 7,2.

• **Hitzarmenaren indarguneak:**

- Bitartekaritza, koordinazioa eta elkarriketa Administrazioarekin.
- Legea erazago betetzeko inbertitu diren baliabideak.
- Oinarri tekniko tinkoak, beste herrialde batzuetako ingurumen-kudeaketari buruzko informazioa eta sendotasuna komunikazioaren alorrean.
- IHOBE line-ren bidezko babesa.
- IHOBEko laguntzaile teknikoen dedikazioa, eskaerei emandako erantzuna, kontaktuak izateko erraztasuna eta informazio zehatz eta arina.
- Ingurumenari dagokionez, enpresei babesa emateko antolakuntza egokia.
- Babesa, enpresen aholkularitza, informazioa eta argitalpenak.

• **Proposatzen diren hobekuntzak:**

- Ingurumenaren alorrean enpresek duten jarrera hobeto ulertzea, baliabide mugatuak dituzte. Garapen iraunkorrak enpresen lehiakortasunari eragiten dio, eta enpresa bakoitzeko baldintza espezifikoetara egokitu behar dira.
- Bilerak antolatzea enprekin IPPC dokumentuak, EPER gidak, AAIak eta abar adosteko.
- Enpresen kezak detektatzea eta Ingurumen Sailari jakinaraztea, Administrazioiko izapideak errazteko. Enpresen eta Administrazioaren artean harreman gehiago egoteko bideak jartzea.
- EMAS erregistroa sustatzea, hori baita etorkizuna. Aholkularitza teknikoa hobetzea eta enpresetara bisita gehiago egitea, borondatezko hitzarmenekin lotuta. Sektoreen arteko harremana bultzatzea, ingurumen-arazoak konpontzeko.

## Borondatezko Hitzarmenaren Aurrerapenen eta erronken inguruan AVEQ-KIMIKA elkarteak duen ikuspegia

**9** 6/61/EE (IPPC) Zuzentaraua onartzeak eta, ondoren, 16/2002 Legearen bidez barne-legetan irudikatzeak euskal industriarentzat zekarren erronkari antzeman zion AVEQ-KIMIKA elkarteak.

Arau horrek eragiten dien enpresa kimikoetako arduradun nagusiek zehaztu zutenez, Europako erreferentziako teknologien dokumentuak (BREF) enpresa jakinetan moldatzeko eta aplikatzeko prozesua da kudeatu beharreko erronka nagusia. Administrazioarekin elkarlanean egin ezean, lehiatzeko duen gaitasuna baldintzatu dezake, eta, ondorioz, haren iraupena ere bai.

Hitzarmena sinatzean, enpresek helburu osagarri bat finkatu zuten: Administrazioarekiko harremanetarako modu berri bat –konfiantzan eta elkar ulertzean oinarritua– bultzatzea, elkarrekin lan egiten saiatuz, helburu batekin: Zuzentaraura moldatzea eta, beraz, Garapen Iraunkorrean aurrera egitea.

Horri dagokionez, esanguratsua da Juan José Navarro Elkarteko lehendakariak sinadura-ekitaldiaren aurreko prentsaurrekoan, 2003ko uztailaren 23an, esandakoa: *“Iraunkortasunerako Borondatezko Hitzarmena sektorearen eskaera zehatz bati dagokio: etorkizuneko lege-eskakizunei epe ertain eta luzeko plangintza zehatzarekin aurrea hartzen utziko dion esparru egonkorra. Hobetzen jarraitzeko eta bere kudeaketan ingurumen-aldagaiaren garrantzia mantentzeko eta areagotzeko tresna da enprezentzat Borondatezko Hitzarmena.”*

Hitzarmena sinatu zenetik ia 2 urte igaro direnean, enpresetako teknikariek azpimarratu dute hitzarmenaren helburu teknikoek maila bikaina lortu dutela eta, oro har, IPPC araudiari moldatzeko prozesua modu egokian bideratu dela.



### Hitzarmena sinatu duten enpresak






## Altzairugintzaren Borondatezko Hitzarmenaren segimendurako gakoak

Ziurtagiria sinatutako eguna: 2003ko urriaren 16a

**Akordioa sinatu duten enpresak/instalazioak:** 13/12  
 ACERÍA COMPACTA DE BIZKAIA ACB, S.A., ACERÍA DE ALAVA, S.A., ACEROS INOXIDABLES OLARRA, S.A., ACERALIA PERFILES BERGARA, S.A., ACERALIA PERFILES OLABERRIA, S.L., ARCELOR ALAMBRÓN ZUMARRAGA, S.A., ARCELOR CORRUGADOS AZPEITIA, S.L., GSB ACERO, S.A. (Azkoitiko eta Legazpiko fabrikak), NERVACERO, S.A., PRODUCTOS TUBULARES, S.A., SIDENOR INDUSTRIAL, S.L., TUBOS REUNIDOS, S.A.

2004ko emaitzen segimendu-data: 2005ko martxoaren 22a

### Landutako gai nagusien eta lorpenen laburpena:

	Hitzarmenaren Helburu nagusiak	Emaitzak 2004	Esanahia
 <b>Ingurumen-hobekuntzak</b>	Hondakin ez-arriskutsuen balorizazioa (tonak)	728.969 tona	Altzairugintzak hondakin-kantitate hori bidali du beste enpresa edo guneeetan ustiatzeko. Hala, ez dira zabortegira bidali.
	Hondakin arriskutsuen balorizazioa (tonak)	62.693 tona	Altzairugintzak altzairugintzako hautsak (hondakin arriskutsua) balorizatu ditu, dituen metalak (zinka eta beruna) berreskuratuz. Hala, hondakin hori ez da zabortegira bidali eta industria-balioa eman zaio.

### SEKTOREAREN HITZA:

- **Sektorearen gogobetetasunaren 2004ko batezbestekoa (0tik 10era), hitzarmenaren arabera:** 7,6.
- **Hitzarmenaren indarguneak:**
  - Hitzarmenaren ahalmena, beste eragile batzuekin hitz egiteko baliabide gisa. Hitzarmena ekimenen eragile gisa.
  - Enpresei aplikatzen zaizkien legeei buruzko informazioa eta lege berrien aurrerapena, zerbitzu eta proiektuen bidez.
  - IHOBEko lan-taldearen jarrera positiboa. Eskuragarritasuna, erantzun bizkorra, irisgarritasuna eta berrikuntza.
  - Hitzarmenak enpresekiko lankidetzat sustatzen du.
  - Ingurumenari buruzko trebakuntza-tailerren bidezko babes teknikoa (enpresen beharrei eta argitalpenen kalitateari begira antolatutakoak).
- **Proposatzen diren hobekuntzak:**
  - Enpresaren benetako beharretara egokitzea.
  - Administrazioaren eta enpresen arteko koordinazioa hobetzea.
  - Administrazioarekin eta beste sektoreekin bitartekaritza egiteko gaitasunean aurrera egitea, borondatezko hitzarmenaren helburuak lortzeko.



## Borondatezko Hitzarmenaren Aurrerapenen eta erronken inguruan Altzairua eta Ingurumena Elkarteak (ACYMA)

**A**ltzairugintzak eta Ingurumen Sailak Borondatezko Hitzarmena sinatu zutenetik bi urte iragan diren honetan, ingurumenari dagokion garapen iraunkorarekin dugun konpromisoa indartu egin da. Horren adierazgarri dira hitzarmenaren betetze-maila handia (% 87) eta sektoreak egindako ahalegina, 2004an ia 12 milioi euro inbertitu baitziren ingurumen-gaietan.

P2005ean, sektoreak aurrera egiten jarraituko du: hondakinen balorizazioan (altzairu-hautsak, zepa beltzak, zepa zuriak) eta gure enpresen errealtateari moldatutako BREF giden garapenean (sektorearentzat aplikagarri diren teknologia onenen erreferentzia-dokumentuak), ingurumenari dagozkion berrikuntzen ikerketan eta kudeaketan, teknologia onenekin bat eginez etengabeko aurrerapenari eusten eta gure ekoizpen-prozesuei eragiten dieten ingurumen-gaietan aurrera egitea ahalbidetuko duten irtenbideak bilatzen.

Hitzarmenaren bidez lortzen den enpresen eta Administrazioaren arteko lan bateratuari esker, etorkizuneko legedira moldatzea eta hori gaititzea lortuko da, eta etorkizunean sor daitezkeen beharrezkoak esparru egonkorra eratuko da gero eta globalizatuagoa eta lehiakorragoa den merkatuaren barruan.



Altzairua eta Ingurumena  
Elkarteak

## Hitzarmena sinatu duten enpresak



**ACERÍA COMPACTA DE BIZKAIA ACB, S.A.**



**ACERÍA DE ÁLAVA, S.A. GRUPO TUBACEX**



**ACEROS INOX. OLARRA, S.A.**



**ACERÁLIA PERFILES BERGARA, S.A.**



**ARCELOR ALAMBRÓN ZUMARRAGA, S.A.**



**ARCELOR CORRUGADOS AZPEITIA, S.L.**



**ACERÁLIA PERFILES OLABERRIA, S.L.**



**GSB ACERO, S.A. Azkoitia**



**GSB ACERO, S.A. Legazpi**



**NERVACERO, S.A.**




**PRODUCTOS TUBULARES, S.A.**



**SIDENOR**



**TUBOS REUNIDOS, S.A.**





## Oregintza- eta Papergintza-sektorearen Borondatezko Hitzarmenaren segimendurako gakoak



Ziurtagiria sinatutako eguna: 2004ko ekainaren 16a

**Akordioa sinatu duten enpresak/instalazioak: 16/17**  
 CELULOSAS DEL ARAXES S.A., CELULOSAS MOLDEADAS HARTMANN, S.A., ECHEZARRETA S.A., KIMBERLY CLARK S.L., LA SALVADORA S.A., PAPELERA AMAROS, S.A., PAPEL ARALAR, S.A., PAPELERA DE LEIZARAN, S.A., PAPELERA DEL ORIA, S.A., PAPELERA GUIPUZCOANA DE ZICUÑAGA, S.A., PAPELERA TOLOSANA S.A., PAPRESA, S.A., PASTGUREN S.L., SARRIOPAPEL Y CELULOSA, S.A. (Zornotza), SARRIOPAPEL Y CELULOSA, S.A. (Uranga), SMURFIT MUNKSJÖ PAPER, S.A., SMURFIT NERVION, S.A.

2004ko emaitzen segimendu-data: 2005ko apirilaren 8a

**Beste zenbait azalpen garrantzitsu:** Echezarreta, S.A. eta La Salvadora, S.A. enpresak fusionatu egin dira eta Paperalia, S.A. enpresa sortu dute.

### Landutako gai nagusien eta lorpenen laburpena:

	Hitzarmenaren Helburu nagusiak	Emaitzak 2004	Esanahia
 <b>Ingurumen-hobekuntzak</b>	Hondakin ez-arriskutsuen balorizazioa (tonak)	177.986 tona	Oregintza- eta papergintza-sektoreak hondakin-kantitate hori bidali du beste enpresa edo guneean ustiatzeko. Hala, ez dira zabortegira bidali.
	Kuantifikatzen zailak diren ingurumen-inpaktuak murrizteko neurriak (erregai fosilak ordeztzea, galdaren errendimendu energetikoa optimizatzea, ur-zirkuituak ixtea)	16 neurri ezarri dira	Hondakin ez-arriskutsuak balorizatzeko neurriez gain, oregintza-eta papergintza-sektoreko enpresek ingurumena hobetzeko hainbat neurri ezarri dituzte; dena den, zaila izan da hobekuntza hori kuantifikatzea.
 <b>Hobekuntzak kudeaketan edo izapideetan</b>	ISO 14001 arauaren arabera ziurtagiria duten enpresak	Instalazio bat ziurtatu da	2004an ISO 14001 arauaren arabera ziurtagiria jaso du enpresa batek, eta kanpoko eragile batek berretsi du sistema hori.
	Ingurumen Baimen Integratua eskatu duten instalazioen kopurua	instalazio bat	Instalazio batek bideratu du, dagoeneko, enpresak izan beharreko ingurumen-baimen eta -lizentzia guztiak biltzen dituen Ingurumen Baimen Integratua. Hala, aurrea hartu dio 2006ko abenduaren 31rako bete beharreko legeri.

### SEKTOREAREN HITZA:

- **Sektorearen gogobetetasunaren 2004ko batezbestekoa (0tik 10era), hitzarmenaren arabera:** 6,6.
- **Hitzarmenaren indarguneak:**
  - Borondatezko Hitzarmenaren lan-taldearen jarrera positiboa, irigarritasuna eta babes teknikoa emateko aukera. Gaia ongi ezagutzen dute.
  - Hitzarmenak enpresen eta legegileen artean bitartekaritza egiteko duen gaitasuna.
  - Enpresentzako interesgarriak diren gaien buruzko informazioa eta hedapena.
  - Giden, legeen eta abarren zerbitzua.

### • Proposatzen diren hobekuntzak:

- Bitarteko material eta ekonomikoak ematea, ingurumen-inpaktua desindustrializaziorik gabe murrizt dadin lortzeko.
- Enpresen jakintza eta horien datuak hobetzea, eta informazio bibliografikoa osatzea.
- Enpresen beharrak Administrazioari hobeto transmititzea.
- Sektoreei legeak eguneratzeko zerbitzua ematea.





## Borondatezko Hitzarmenaren Aurrerapenen eta erronken inguruan Paperaren Cluster Elkarteak (CLUSPAP) duen ikuspegia

**D**uela urtebete baino gutxiago Borondatezko Hitzarmenak sinatu ziren, eta argi geratu zen Euskadiko papergintza-industriak –bai oreka eta bai papera egiten duten enpresek– ingurumen-iraunkortasunari laguntzeko egindako apustua. Lehen aldi honen balantzea eginez, hasi baino gehiago egin dugula esan dezakegu.

Alde batetik, Administrazioarekiko harremanak biziagotu egin dira, eta, bestetik, lege-eskakizun berriei erantzun diegu. Bestalde, etorkizuneko eskakizunetara egokitzeko prestatzen ari gara. Ahalegin bikoitz horrek eta 2004an egindako 13 milioi euroko inbertsioak bere fruituak eman dituzte.

Borondatezko hitzarmenei dagokienez, 2004an hitzarmena sinatu zuten enpresek egindako aurrerapenak azpimarra ditzakegu: hondakinen balorizazioa handitu dute, erabilitako uraren kontsumoak asko murriztu dituzte, produkzio-instalazioetan baterako sorkuntza instalatu dute edo instalatzeko bideragarritasun-azterketa egin dute, gas-galdaren funtzionamendua optimizatu dute, sektoreko emisioen komertzio-ekimenetan parte hartu dute, ingurumen-kalitatea kudeatzeko sistema ezarri dute ISO 14001en arabera eta EPER-atmosfera proiektuan parte hartu dute.

Gure sektoreak gure ingurumen-ingurunea gehiago babesteko prozesu eta produktuak etengabe hobetzen jarraitzen du, eta horren adierazgarri da Euskadiko Paperaren Clusterraren gogoeta estrategikoan ingurumenaren esparruan izan zuen arreta. Ingurumen-iraunkortasunarekiko ekarpena eta konpromisoa erronka estrategiko gisa islatu ziren.



## Hitzarmena sinatu duten enpresak



## Hondakin Arriskutsuak Kudeatzen dituen sektorearen Borondatezko Hitzarmenaren segimendurako gakoak

Ziurtagiria sinatutako eguna: 2004ko uztailaren 21a



**Akordioa sinatu duten enpresak/instalazioak:** 22/23  
 ARS, S.A., AFESA MEDIO AMBIENTE, S.A., BOTRADE, S.L., ECOCAT, S.L., EKO GUARDI, S.L., EKONOR, S.A. (Araba y Bizkaia), FLORENCIO NARRO ARRIORTUA, INTERENVASES, S.A., INDUMETAL RECYCLING, S.A., LIMPIEZAS NERVIÓN, S.A., LIZARREKA, S.L., NORECO 2000, S.L., ONEDER, S.A., PAL, S.A., RECUPERACIONES ARGÉNTICAS GAR, S.L., RECYPILAS, S.A., SADER, S.A., SAFETY KLEEN ESPAÑA, S.A., SERVICIOS ECOLÓGICOS ACITAIN, S.L., SOGECAR, S.A., TRADEBE, S.A., VICENTE FRESNO, S.A.

2004ko emaitzen segimendu-data: 2005ko apirilaren 13a

2005erako atxikitako enpresak (2): ELIRECON, S.L. eta REYDESA RECYCLING, S.A.

2005erako hitzarmena sinatutako instalazioak: 25

### Landutako gai nagusien eta lorpenen laburpena:

	Hitzarmenaren Helburu nagusiak	Emaitzak 2004	Esanahia
 <b>Ingurumen-hobekuntzak</b>	Kuantifikatzen zailak diren ingurumen-inpaktuak murrizteko neurriak (turzorua poluzioa prebenitzea, ikusmen-inpaktua txikitzea, arriskuen minimizazioa, emisio atmosferikoak murriztea, errendimendu energetikoa optimizatzea, euri-uren kudeaketa optimizatzea)	16 neurri ezarri dira	Hondakin arriskutsuak kudeatzen dituen sektoreko enpresek ingurumena hobetzeko hainbat neurri ezarri dituzte; hala ere, zaila izan da hobekuntza hori kuantifikatzea.
 <b>Hobekuntzak kudeaketan edo izapideetan</b>	Ingurumen Baimen Integratua eskatu duten instalazioen kopurua	Instalazio bat	Instalazio batek bideratu eta lortu du, dagoeneko, enpresak izan beharreko ingurumen-baimen eta -lizentzia guztiak biltzen dituen Ingurumen Baimen Integratua. Hala, aurrea hartu dio 2006ko abenduaren 31rako bete beharreko legerari.

### SEKTOREAREN HITZA:

• **Sektorearen gogobetetasunaren 2004ko batezbestekoa (0tik 10era), hitzarmenaren arabera:** 7,6.

• **Hitzarmenaren indarguneak:**

- Hainbat sektoreri buruzko informazioa eta ikuspegi globala.
- Hondakinen kudeatzailerik Administrazioaren aurrean egindako eskaera eta beharrei buruzko informazioa eta koordinazioa.
- Elkarrizketarako gaitasuna, gertutasuna, enpresaren beharretara egokitzeko aukera, komunikazio pertsonalizatu eta erraza eta gure zalantzei eta eskaerei erantzuteko aukera.
- Ingurumen-jokabideak hobetzeko argitalpenen eta gidien katalogo zabala eta osoa.
- Laneko metodologia eta enpresaren segimendu eta laguntza teknikoak.

– Industriaren sektoreko enpresei informazioa emateko zerbitzu ona, batez ere ikuspegi teknikoetik eta berrikuntzaren ikuspegitik.

• **Proposatzen diren hobekuntzak:**

- Administrazioak malgutasun gehiago izatea eta enpresen interesak defendatzea.
- Ingurumen-eskakizunak bateratzeko, beste komunitateekin adostea.
- Enpresen eta Administrazioaren arteko bitartekaritza hobetzea.
- Enpresek iritzi publikoaren aurrean duten ingurumen-irudia hobe dadin laguntzea.
- Enpresen jardueren segimendu indibidualizatua egitea.
- Enpresek eskatutako informazioa koordinatzea, entregatuta dagoen informazioa berriro eska ez dadin.
- Enpresen eta laguntza-aholkularien arteko harremana bultzatzea.
- IKSk eta dokumentazioa ezartzeko diru-laguntzak ematea.





## Borondatezko Hitzarmenaren Aurrerapenen eta erronken inguruan Euskadiko Ingurumeneko Industrien Cluster Elkarteak (ACLIMA) duen ikuspegia

**H**ondakinen kudeaketako euskal sektoreak, hitzarmena sinatzean azaldu zen moduan, ezaugarri zehatz bat du; izan ere, kontrolatu beharreko eraginak sortzen dituen produktio-jarduera du, eta, era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Garapen Iraunkorrerako Ingurumen Estrategiaren helburuak eta hondakinen kudeaketa hobetzeko helburuak betetzeko konponbideak izatea ahalbidetzen duen merkatu-tresna eratzen du.

Alde horretatik, hitzarmenean bi helbururekin parte hartzea erabaki zuen sektoreak; batetik, bere ingurumen-inpaktuak murriztea (horregatik ez da poluzio gehien eragiten duen sektoretako bat); eta, bestetik, Administrazioarekin elkarlanean hondakinak balorizatzeke ahalmen guztia garatzea, hondakinak deuseztatzeko ohiko kudeaketa-sistemen aurrean.

Azken alderdi hori da hitzarmeneko alderdi garrantzitsuenetako bat, ekoizle txikiek –aintzat hartzeko moduko portzentajeaz daude, oraindik, tratamendu-zirkuituetatik kanpo– sortutako hondakinen tratamendua bideragarri eta posible egiteko erronkarekin batera. Horretarako, hitzarmenak aukera bat ematen du Administrazioarekin “harreman-foro” bat ezartzean, gai horien garapenak dakartzan oztopoei eta aukerei buruz elkarrekin eztabaidatzeko.

Horren aurrerapen-maila ez da izan, orain arte, hasieran programatutakoa, nahiz eta 2005erako ezarritako lan-planek debora berreskuratzea eta helburuak lortzea ekarriko duten; helburu horiei dagokienez, erabateko adostasuna dago Administrazioaren eta hitzarmena sinatu duten enpresen artean, eta hori da garrantzitsuen.

Hitzarmeneko gainerako helburuei dagokienez, azpimarratu nahi genuke sektoreak “aitzindari” izan nahi izan duela “lurzoruaren poluzioaren prebentzioan” (kontuan izan lurzoruaren poluzioa prebenitzeko eta zuzentzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Legea onartu baino 9 hilabete lehenago sinatu zela hitzarmena), eta, ondorioz, hitzarmena sinatu duten enpresek bete dituzte aurreikusitako ezaugarrien azterketak (% 100ean).

Hurrengo aldirako, sektoreari interesatzen zaio Administrazioarekiko komunikazio-foroari zabalik eustea, elkarrekin aurrera egiteko hondakinen kudeaketari konponbideak emateko garapenean, egokiena iruditzen zaien formatuan.



### Hitzarmena sinatu duten enpresak



# Galdaketa- eta Metalurgia-sektorearen Borondatezko Hitzarmenaren segimendurako gakoak

Ziurtagiria sinatutako eguna: 2004ko urriaren 6a



**Akordioa sinatu duten enpresak/instalazioak:** 35/40  
ALCOA TRANSFORMACIÓN DE PRODUCTOS, S.L., AMPO, S.COOP., AMURRIO FERROCARRIL Y EQUIPOS, S.A., BEFESA ALUMINIO BILBAO, S.L., BEFESA ZINC AMOREBIETA, S.A., BEFESA ZINC ASER, S.A., BEFESA ZINC SONDIKA, S.A., BETSAIDE, S.A.L., ELMET S.L.U., FAGOR EDERLAN S.COOP., FUCHOSA, S.L., FUNDACIÓN NODULAR FLESIC, S.A., FUNDICIONES DEL ESTANDA, S.A., FUNDICIONES FUMBARRI, S.C.L., FUNDICIONES GARBI S.A., FUNDICIONES INYECTADAS ALAVESAS S.A. (FIASA), FUNDICIONES PALACIO S.L., FUNDICIONES SAN ANTONIO DE URKIOLA, S.L (FUNSAN), FUNDICIONES SAN ELOY S.A., FUNDICIONES URBINA, S.A., S.A. GAMARRA S.A, GUIVISA, S.L, HIJOS DE JUAN DE GARAY, S.A., INYECTAMETAL S.A., J.L. FRENCH-ANSOLA S.R.L., MICROFUSIÓN ALFA S.L., NOVACERO, S.A.L., OLAZABAL Y HUARTE, S.A., REFINERÍA DE ALUMINIO IGORRE, S.L., TALLERES FABIO MURGA, S.A., TS FUNDICIONES, S.A., VICTORIO LUZURIAGA – USURBIL, S.A.

**2004ko emaitzen segimendu-data:** 2005eko apirilaren 6a

**2005erako atxikitako enpresak (2):** AMURRIO FERROCARRIL Y EQUIPOS, S.A; FUNDICIONES SAN ANTONIO DE URKIOLA, S.L (FUNSAN).

**2005erako hitzarmena sinatutako instalazioak:** 42

## Landutako gai nagusien eta lorpenen laburpena:

	Hitzarmenaren Helburu nagusiak	Emaitzak 2004	Esanahia
 <b>Ingurumen-hobekuntzak</b>	Hondakin arriskutsuen sorrera murriztea (tonak)	2.059 tona gutxiago (hondakin arriskutsuak)	Sektoreak kantitate hori ekoizteari utzi dio, bere prozesuak hobetzeko neurrien bidez.
	Hondakin ez-arriskutsuen balorizazioa (tonak)	13.256 tona	Galdaketa- eta metalurgia-sektoreak hondakin ez-arriskutsuen kantitate hori bidali du beste enpresa edo guneetan ustiatzeko. Hala, ez dira zabortegira bidali.
	Hondakin arriskutsuen sorrera murriztea (tonak)	1.059 tona	Galdaketa- eta metalurgia-sektoreak hondakin arriskutsuen kantitate hori bidali du beste enpresa edo guneetan ustiatzeko. Hala, ez dira zabortegira bidali.
	Kuantifikatzen zailak diren ingurumen-inpaktuak*	21 neurri ezarri dira	Galdaketa- eta metalurgia-sektoreko enpresek ingurumena hobetzeko hainbat neurri ezarri dituzte; hala ere, zaila izan da hobekuntza hori kuantifikatzea.
 <b>Hobekuntzak kudeaketan edo izapideetan</b>	Beren ingurumen-memoria Europako Araudiaren (EMAS) arabera erregistratu duten instalazioak	Instalazio bat	Instalazio batek memoria bat egin du, adieraziz Europako Batzordearen EMAS Araudiaren arabera kudeatzen duela ingurumena. Araudi horrek ezartzen ditu informazio publikoa duen ingurumen-kudeaketarako sistema batek nolakoa izan behar duen dioten irizpideak. Memoria hori enpresaz kanpoko eragile batek ziurtatu du, eta Eusko Jaurilaritzak egiaztatu, Araudiak eskatzen duen moduan.

\* Emisio barreiatuak murrizteko neurriak, isuriaren kalitatea hobetzeko neurriak, inpaktu akustikoa murrizteko neurriak, lurzorua kalitatearen prebentziorako neurriak.

## SEKTOREAREN HITZA:

• **Sektorearen gogobetetasunaren 2004ko batezbestekoa (Otik 10era), hitzarmenen arabera): 7,7.**

• **Hitzarmenaren indarguneak:**

- Borondatezko hitzarmeneko solaskideen gertuko arreta pertsonalizatua; sortutako zalantzak berehala erantzutea. Teknikari gaituak eta adituak.
- Informazio/dokumentazio tekniko eta legezkoa, argitalpenak eta argitaratutako kalitatezko gidak eskuratzeko aukera.
- Harreman zuzena Administrazioarekin. Enpresei laguntzeko interesa du. Gertutasuna eta komunikazio ona.
- Enpresa bakoitzaren eskaera zehatzak ongi hartu izana.
- Sektoreko beharrei jardueren/programen bidez erantzun izana; gai berriei buruzko jardunaldi tekniko eta tailer kalitatezko eta erabilgarriak.

• **Proposatzen diren hobekuntzak:**

- Informazioa/dokumentazioa eskatzen denean, erantzuteko denbora laburtzea.
- Administrazioaren eta enpresen artean harremana maizago izatea.
- Sektore eta azpisektore bakoitzaren ezaugarrietara errazago egokitzea.
- Eusko Jaurilaritzarekin informazio-trukea hobetzea, enpresen dedikazioa optimizatzeke .
- Proiektuen inplikazioa, segimendua eta kudeaketa-metodologia gauzatzea.
- Araudi berri garrantzitsuei eta etorkizunean izan daitezkeen aldatetei buruzko jardunaldi teknikoak egitea.
- Akordioen arteko koordinazioa hobetzea, adibidez, ingurumen-irtenbideak bilatzeko garaian.



## Borondatezko Hitzarmenaren Aurrerapenen eta erronken inguruan Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Urtzaileen Elkarteak (AFV) eta Euskadiko Ingurumeneko Industrien CLUSTER Elkarteak (ACLIMA) duten ikuspegia

**E**uskal Autonomia Erkidegoko galdaketa-sektoreko 31 enpresak eta burdinazkoa ez den metalurgia-sektoreko Euskal Autonomia Erkidegoko 6 enpresa, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Urtzaileen Elkartearekin eta Aclima, Ingurumen Industrien Clusterrarekin, haiek osatutako elkarteek badakite ingurumena babestea garrantzitsua dela, eta, horregatik, Borondatezko Hitzarmena sinatu zuten 2004an Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailarekin. Hitzarmen horretan ingurumenarekiko konpromiso ugari hartu zuten, eta, 2005ean, beste bi enpresak sinatu dute hitzarmen hori.

Borondatezko Hitzarmenaren segimenduak nabarmen utzi du helburuak lortzeko galdategiek izan dute parte-hartzea. Izan ere, 2004erako finkatutako konpromisoen % 80 bete dira, eta 4 milioi euro inbertitu dira. Datu horiek garbi utzi dute Euskal Autonomia Erkidegoko Galdaketa eta ez burdinazko metalurgiaren Sektoreak ingurumenarekin eta, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko garapen iraunkorarekin duen konpromisoa.

Atal hauetan egindako aurrerapenak nabarmendu behar ditugu: hondakinak minimizatzen eta balorizatzen, atmosferara egindako emisioen arazketa-sistemak instalatzen, kanpoko zaratak kontrolatzen eta murrizten, zoruaren eta itsas ingurunearen poluzioa prebenitzen eta araei aurrea hartzen eta ingurumeneko kudeaketa-sistemak ezartzen.

Ingurumenarekin lotutako eskaera gehiago sinatzeko garaian, ezinbestekoak izan dira faktore hauek: batetik, etorkizuneko lege-eskakizunei aurrea hartzea eta pixkanaka horietara egokitzea, batez ere IPPC zuzentarautik eratorritakoez ari garela; bestetik, Administrazioaren eta enpresen artean etengabe elkarri laguntzeko harremana edukitzeko beharra. Azken horrek legezko betebeharrak segurtasunez eta konfiantzaz beteko direla eta gizarteak kalitate hobea ingurua izatea bermatzen du.

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Urtzaileen Elkarteak hainbat proiektutan ari da lanean, besteak beste, galdaketako harea kudeatzeko instalazioan edo sektorean dauden teknika onenen gidaliburua egiten, galdategiek aurrera egin dezaten, poluzioaren prebentzioan eta ingurumen-inpaktua minimizatzen.




### Hitzarmena sinatu duten enpresak



# Borondatezko Hitzarmenetan 2004an Lortutako Ingurumen-hobekuntzak: Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen-estrategiari egindako ekarpena

- 2004an hitzarmenak sinatu zituzten sektoreen kopurua: 6
- 2004an hitzarmenak sinatu zituzten enpresen kopurua: 118



\* Gutxigoberako zenbakiak dira